

5. Senitartekoak



5.1

Argazkian, Zeanuriko Uribeko Leon Ordeñana. Hau Urubiko Manuela Berasaluzegaz ezkondu zan eta bost seme-alaba izan ebezan: Miguel, Markos (errotasarrera ezkondu zana), Santa, Hildefonsa eta Josefa. Bere iloba Mari jagoten emoten eban denborarik gehiena, bere emazte Manuela josten ibiltzen zan eta. 1915 aldera hil zan urteatan oso sartua egoala (100 urtetik gora izan ei ebazan hil zanean). Argazkia Urubi aurrean atarata dago, arto zuritutuen dala, Zedron dentista famauaren semeren batek atarata.



5.2

Isabel Beaskoetxea, 1850 aldera Barazarren jaioa. Zeberrioko Jose Antonio Ipiñagaz ezkondu Arantzazugoitira eta zortzi seme-alaba izan ebezan: Damian, Florenzia, Pedro, Tomas, Eujenio, Antonio, Mari eta Agustin. Isabel 1956 aldera hil zan, 90 bat urteko zala.



5.3

Leokadia Barrenetxea Zabala (Aitzuzarren jaioa 1875-XII-9an). Bere guraso Estanislao eta Josefa eta aitite-amamak Igorretarrak izan zirean. Leokadia Dimako Pedro Aldaigaz ezkondu zen eta uriko alaba bat ekarri eben, Sekundina Soledad Ines. Hau Gregorio Etxezarragagaz ezkondu eta Salbidera joan ziren biziten. Leokadiak beste lau neba-arraba izan ebazan: Dorotea, Frantzisko, Dolores eta Franziska. Leokadia 1954-IX-10ean hil zan, 79 urteko zala.



5.4


Juliana Atutxa Uriarte, Bekotxen bizi zana bere aizta Mariagaz. Mariarena zan Bekotxeko propiedadea eta gero bere seme Jose Kruz Artetari (Arantzazun 1883-VII-15ean jaioa) emon eutson.

Juliana Aranduiko Pedro Zeledonio Ugaldegaz ezkondu zan eta lau seme-alaba izan ebezan, Pedro, Paula, Jose Ramon eta Maria.



5.5

Aranduiko Narziso Ugalde Bernaola, Eskolastiko Ugalde eta Leona Bernaolaren oinordekorik zaharrena, 1885-X-28an jaioa. Gasteizen esan ei eban bere lenengo meza baina segiduan hil ei zan. Argazkia 1905 aldekoa izan leiteke.



5.6

Leonardo, Angel eta Modesta Ugalde Bernaola, Aranduikoak.
Pedro Ugalde eta Maria Antonia Uriartek hiru seme-alaba izan ebezan: Paula (1857an jaioa), Eskolastiko (1860an jaioa) eta Pedro Zeledonio. Eskolastiko Leona Bernaolagaz ezkondu eta zortzi seme-alaba izan ebezan: Narziso, Julian, Maria, Angel, Josefa, Leonardo, Modesta eta Franzisko.
Leonardo (1896-V-11n jaio eta 1980-IV-29an hil zana) Konzepzion Undurragaz ezkondu eta hiru seme izan ebezan, Franzisko, Alejandro eta Jabier.
Angel (1891-II-10ean jaioa) Anizeta Etxebarriagaz ezkondu eta sei seme-alaba izan ebezan, Inazio, Sabino, Maria Jesus, Angel eta Jose Luis. Sevillan hil zan 1971-IV-25ean. Modesta 1899-III-27an jaio zan, Miraballesera ezkondu Juan Artetanera eta seme-alaba bi izan ebezan. Pablo eta Mari Karmen.



5.7


Aranduiko Mari Ugalde Atutxa eta bere alaba Eulalia eta Maria. Mari Pedro Zeledonio Ugalde eta Juliana Atutxaren oinordekorik gazteena dogu (Pedro, Paula, Jose Ramon eta Mari, 1887-XII-22an jaioa). Mari Dimako Ziarrustako Juan Iturbe Yurrebasogaz ezkondu eta orduan Arantzazura bajatu zirean, errementarira. Hainbat seme-alaba izan ebezan (artxiboen arabera, Biktor, Maria, Andres, Gabriel, Eulalia, Agustin eta Eustakio bai), danak errementari-etxean jaioak.

Eulalia Agapito Estefaniagaz ezkondu zan. Maria (1920-VI-25an jaio eta 1995ean hil zana) Areatzako Justo Undagoitia Kortazarregaz ezkondu zan, alaba bi eta seme bat izan ebela.



5.8

Agustin, Andres eta Eustakio Iturbe Ugalde, Ziarrustako Juan Iturbe Yurrebaso eta Aranduiko Maria Ugalde Atutxaren semeak. Erremendarian jaioak dira. Agustin, gazte zala, gerran egoala, gaixotu eta bere azkenengo egunak emoten etxera ekarri eban. Andresek (1921-XI-29an jaioa) Lemoako zementoetan egiten eban behar eta, gaztea zala, han gertatu jakon istripu batek eroan eban. Eustakio Donostiko Maria Arostegigaz ezkondu zan eta bi seme-alaba izan ebezan. 1966 aldera hil zan gaixotasun batek jota.




5.9

Santandergo Bustablado herriko Basilisa Alonso Alonso. Basilisa herri bereko Jose Madrazogaz ezkondu eta hainbat seme-alaba izan ebezan: Pantxike, Pedro, Mateo, Franziska, Manuel, Felipa, Dolores, Pedro, Jose, Serafin eta Andres (azken bostak Arantzazun jaioak). Arantzazura etorri ziranean Olarrara joan zirean biziten eta Basilisa telak eta saltzean ibiltzen zan bere mandoak hartuta.



5.10

Josefa Larrea Bilbao, 1886an jaio Txoritxen eta 1973-XII-5ean hil zana. Pedro Bilbao Estankona (Txoritxen jaioa, 1846an) eta Franziska Larrea Bilbao (Arantzazun jaioa 1857an) 1881-V-16an ezkondu eta hiru seme-alaba izan ebezan, Maria Jesus, Josefa eta Eujenio. Josefa Igorreko Bekotxeko Juan Miguel Yurrebaso Astondoagaz ezkondu eta lau seme-alaba izango dabez, Juliana, Asensio, Franzisko eta Gabriel.



5.11

Maria Josefa (1888-XII-26an jaioa), Maria Juana (1896-IV-28an jaioa) eta Margarita (1893-XI-10ean jaioa) Larrea Zamalloa, Bizkerrekoak. Beste aizta bi bere izan ebezan, Tomasa (1890-XII-24an jaioa) eta Mariana (Obako Kaudalategira ezkonduko dana).

Maria Josefa da Fermin, Bizente eta Joseren ama; argazkian 18 urte daukaz. 1932.ean hil zan.


Maria Juana 1936ko bonbardaketan hil zan Durangon Santa Susana komentuan monja egoala. Argazkian 35 bat urte ditu.

Margaritak 18 bat urte ditu argazkian. 1973-IV-20an hil zan, 80 urte ebazala.



5.12

Katikenako Pedro Artetxe Bilbao, 1872-VIII-21ean jaioa. Antonio eta Mariaren seme, bost neba-arrebatan zaharrena dogu (Pedro, Josefa, Domingo, Miguel eta Konzepzion). Pedro Pilar Idirin Urizarregaz ezkonduko da 1897-III-15ean eta bost seme-alaba izango dabez, Juan, Gerbasio, Manuel, Roman eta Pilar.
Pedro 1962 aldera hil zan.



5.13

Errotako Antonio Bilbao Bernaola, 1886an jaio eta 1958an hil zana. Antonio Sinforoso Bilbao eta Josefa Bernaolaren laugarren oinordekoa dogu (Antolin, Sinforoso, Santiago, Antonio, Felipa, Justa eta Juliana). Antonio Sautuko Luzia Garaigaz ezkondu eta bost seme-alaba izan ebezan, Isidra, Angel, Konzepzion, Maria eta Sinforoso.

Antonio Arantzazuko alkate zala, Igorren erromeriaren bat antolatu ei eben orduko gazteak. Abadeak eta orduko agintariek debekua jarri eta Arantzazura etorri zirean. Alkatearen baimena jaso baina errotako administradorea (Boni Etxebarria) agindu eben, erromeria debekatu ezean, etxe-jabeak kanpora atarako ebazala esanaz.



5.14

Pedro Yurrebaso Belamendia, Olarragoitin 1902-I-12an jaioa. Luzila Ibarragaz ezkondu zan 1941 inguruan eta seme bat izan eben, Santi. Pedro eta sendia gaur desagertua dan Etxebarri baserrian biziten zirean. Luzila Pedroren anaia Balentinegaz egon zan ezkondua (hiru seme-alaba izan ebezan: Gregorio, Rikardo eta Maria) eta alargundu ostean Pedrogaz ezkondu zan.




5.15

Josefa Ordeñana Goikoetxea (*Josefa troka*), 1916an jaioa Trokan. 1946 aldera Arteako Juan Ugarrizagaz ezkondu eta hiru seme-alaba izan ebezan: Juan Jose, Jose Miguel eta Maria Rita. Arantzazuko errementarira ezkondu zirean. Gero, Juan kontratista zala ta, Idurietako etxea jaso eben, han bizi eta azkenean Elorriora joan zirean biziten.



5.16

Agustina San Anton Bustinza, 1888-VII-27an jaio Salbiden eta 1978-II-1ean hil zana, 89 urteko zala. Agustina sei neba-arrebatan zaharrena izan genduan (Agustina, Pedro, Antonio, Toribia, Faustina eta Fruktoso). Argiñako Franzisko Bilbao Elexpegaz (1888an jaio eta 1938-I-20an hil zana) ezkondu eta hiru seme-alaba izan ebezan, Petra, Joakin eta Toribio.



5.17

Dimako Bentatxuriko Lino Zubigarai Bilbao. 9 urteko zala etorri zirean Elezkaora. 1910 aldera Bildosolako Eusebia Yurrebaso Espartagaz ezkondu eta bederatzi seme-alaba izan ebezan: Bonifazio, Eustakio, Tomas, Maria Dolores, Paula, Miguel, Miguel, Maria Konzepzion eta Alejandro. Lino 1976 aldera hil zan 88 urteko zala; bere emazte Eusebia, 1955 aldera.



5.18

Obako Justo Atutxa Totorika behi buzterriagaz Usubilerako bidean, Torrea parean, 1953 aldera. Orduan, Torrean, Santi eta Manuela Torrenean prentsua eta egoten zirean eta handik ekarten eben.



5.19

Isabel Bilbao Aizpuru (1900.ean Berdolatzen jaio eta 1975-III-29an hil zana). Arantzazuko Cayetano Bilbao Igorreko Isabel Aizpurugaz ezkondu zan eta bost seme-alaba izan ebezan, Fakundo, Eujenio, Paulina, Isabel eta Jose. Isabel ezkondu barik gelditu zan eta Berdolatzen bizi izan da bere aizta Paulina, honen senar Pedro Bereziartua eta honeen seme-alabakaz.



5.20

Pantxike Bilbao Elexpe eta Jose eta Serafin Madrazo Alonso, koinatu-koinatak. Pantxike Juan Tomas Bilbao eta Franziska Elexperen alaba izan zan (Juan Tomas, Balentin, Paulo, Patxi, Paskuala, Feliziana, Pantxike eta Mari dira neba-arreba guztiak) eta bere neba-arrebakaz bizi zan Argiñan Arantzazura bajatu eta Madrazonean bere aizta, koinatu eta lobakaz biziten etorri zan arte.

Jose (1887-III-14an jaioa) eta Serafin (1889-XI-30ean jaioa) Madrazo Alonso Olarran jaiotako Jose Madrazo eta Basilisa Alonsoren semeetako bi dira. Maria Bilbao Elexpegaz ezkonduko da Jose eta Serafin abade egingo da.



5.21

Agapito Inunziaga Olabarrieta eta bere aita Agapito Inunziaga, Urkuzukoak. Aita Agapito Igorreko Agarreko Josepa Olabarrietagaz ezkondu eta sei seme-alaba izan ebezan, Toribio, Juan (gaztetan gaizorik hil zana), Maxima, Benita, Agapito eta Patxiko. Agapito gaztea zoritxarreko Inozente egun batean hil zan 1940.ean, bere eskopetaren tiro bat bitarte izan zala. Bere aita laugarren hilabetegarrenean joan jakun hirurogetaka urteko zala. Agapitoren alaba Maxima Arantzazura ezkonduko da Franzisko Etxebarria Amorrortugaz.



5.22

Hilario Soloeta Amorrortu eta adiskide bat Balzolako Lourdeseko ermitaren aurrean. Pedro Antonio Soloeta eta Ramona Amorrortuk lau seme izan ebezan, Hilario, Norberto, Julian eta Domingo. Norberto Goirira ezkondu zan bertako Maria Josefa Ozerin Zuberogaz eta hau hil zanean bere aizta Katalinagaz (honeen aitite Josek jaso eban Gorie 1838an, etxeko ateburuan bertan adierazoten dan legez: "*esta casa fue construida por Jose de Osexin el año 1838*"). Norberto eta Katalinaren seme Luis izan zan Koldo, Jon eta Karmenen aita.



5.23

Nieves Etxebarria Berasaluze, Igorreko beko plazako Txaton tabernakoa. Nieves 1888 aldera jaio zan eta sei neba-arrabatan zaharrena izan genduan (Nieves, Segundo, Pedro *txato*, Jovita, Luziano eta Anita). Lemoako Olatzeko Gabriel Zuazo Belaustegigaz ezkondu zan 1912 aldera eta zazpi seme-alaba izan ebezan: Gabriel, Pedro, Mari, Bizente (Ameriketari hil zana), Jovita, Tere eta Joseba Zuazo, Olarreko Isabel Bernaolagaz ezkonduko dana. Nieves 1966 aldera hil zan, 78 urteko zala.

Argazkia 1930 aldera egin da Igorreko goiko plazako iturrian (gaur Belaustegitarren joyeria dagoen tokian egoana).



5.24

Rosa Soloeta Bilbao, Diman jaioa 1890 aldera eta Olarragoitiko Klemente (Kele) Yurrebaso Belamendiagaz ezkondua, 1919.ean. Bederatzi seme-alaba izan ebezan: Luisa, Pedro, Inazia, Juan, Rosario, Gregori, Dolores, Sabin eta Bitoren. Rosa 1948.ean hil zan, 58 urteko zala. Argazkia 1912 aldekoa da.



5.25

Domingo Uria Bikandi, Iber-bekoan jaioa 1895-IX-23an. Domingo Agustín Uria eta Maria Bikandiren seme izan genduan. 13 urteko zala Uruguayra joan zan bere osaba Jose Uriagaz eta Rio Brankon kokatu zirean. Garai haretan *Artigas* izendatzen eben. 1939.ean Celmira Reverdittogaz ezkondu eta seme-alaba bi izan ebezan: Adan eta Eba. 1957-IX-13an hil zan Domingo. Argazkia 1935 ingurukoa izan leiteke.



5.26

Arantzazugoitiko Elias Arza Urkiza. Elias injinerua zan eta Edesan egi-
ten eban behar. 1956-VII-26an, 28 urteko zala, hil egin zan bertan elek-
trokutauta. Urte horretan berean ezkontzekoa zan 16 urtegaz nobio
hasi zan Arteako Leon albokariaren arreba Angelitagaz.



5.27

Josepa Ordeñana Egileor, Trokan jaioa 1880 urtean. Josepa Zeanuriko Bizente Ordeñana eta Arteako Maria Martina Egileorren alaba dogu. Bere neba-arrebak izan zirean Ziriaka eta Bizente. Ziriaka Igorreko Etxebarriko Kristobal Totorikagaz ezkonduko da 1895-II-9an eta euren seme Simon Dorotea Gondragaz ezkondu eta Arantzazura etorriko dira, lenengo Olarrera, gero Aitzuzarrera eta azkenean Arantzazugoitira. Bizente Argiñako Juana Goikoetxea Bilbaogaz ezkonduko da. Josepa Arantzazugoitin bizi izan zan bere loba Simonegaz eta 1979-XI-19an hil zan 99 urteko zala.



5.28

Arantzazun beti izan da tradizio handia txakolina eta sagardoa egiten (Arantzazugoitiko Arzatarrak eta Salbideko San Anton eta Etxezarragatar-
rrak, batez bere, oraintsura arte egin izan dabe) eta argazki hau dogu tradizio horren erakusgarri. Bertan Salbideko Fruktoso San Anton Bus-
tinza, bere baserriko kortan kupelartean. Argazkia 1980 aldekoa da.



5.29

Isabel Gorostiaga Bernaola, Bekotxen jaio 1946 urtean eta 1969-IV-20an hil zana. Juli Bernaola eta Felix Gorostiagaren hamaika neba-arrebatan bigarrena izan genduan Isabel.